

ERANSKINA: "Basauriko ADINEKOEN ELKARTEEI 2017ko udal-diru laguntzak emateko deialdia. Gizarte-politika Arloa, Gizarte-ongizate Atala."

| | |
|------------------------------------|----------------------------------|
| DIRU-LAGUNTZA LERROA | PERTSONA NAGUSIENTZAKO LAGUNTZAK |
| DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUA | EREMU SOZIOKULTURALEKO JARDUERAK |
| Aurrekontu partida | 11 2312 48199 |
| Partidaren deskribapena | TA IAGEei. ADINEKOAK |
| Zenbatekoa | 7.880,32 €. |
| Diru-laguntza emateko prozedura | NORGEHIAGOKA |

1. XEDEA:

Udalerriko jubilatuen elkarte desberdinek egindako jarduerari laguntza eskaintzea, pertsona nagusiei begira jarduera soziokulturalak sustatzeko helburuz.

2. NORI ZUZENDUTA:

Udalerriko jubilatuen elkarteei.

- BAZTER UTZITAKOAK:

Beste edozein elkarte edo erakunde.

3. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK:

Gizarte-, kultura- eta kirol-jardueren programak.

- BAZTER UTZITAKOAK:

Basauriko udal diru-laguntzen deialdiaren barruan, beste diru-laguntza lerro bateko jarduerak bultzatzen dituzten programak.

4. DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA:

Eskabide-orrria aurkeztu beharko da (Anexol_Solicitud), honako dokumentu hauekin batera:

- Jardueren proposamena (Anexo II(A)_Propuesta_actividades.doc)
- Aurrekontua (Propuesta_Presupuesto.xls).

5. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA:

HILABETE, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu osteko biharamunetik hasita.

6. BALORAZIO IRIZPIDEAK:

Diru-laguntzen zenbateko osoa onuradun guztien artean hainbanatuta, formula honi jarraiki: $(D-N/T) \times P$. Hona hemen ikurren azalpena:

- D: aurrekontu-partidaren zenbateko erabilgarria.
- T: eskatzaile guztiek lortutako puntuen batura osoa.
- P: erakunde onuradunak lortutako puntu-kopurua.

Banakako diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko irizpideak.

| IRIZPIDEA | GEHIENEZKO PUNTUAZIOA |
|---|-----------------------|
| | 100 |
| 1. PROGRAMAREN EDUKIA | 30 |
| 1.1 Xedeak | 10 |
| 1.2 Jarduera | 10 |
| 1.3 Finantza-ahalegina | 10 |
| | |
| 2. PROGRAMAREN EGONKORTASUNA | 5 |
| | |
| 3. ANIZTASUNAREN TRATAMENDUA | 12 |
| 3.1 Hizkuntzaren normalizazioa barne hartzea | 3 |
| 3.2 Genero ikuspegia barne hartzea | 3 |
| 3.3 Etorkinak gizarteratzeko ekintzak barne hartzea | 3 |
| 3.4 Balioak bultzatzeko ekintzak barne hartzea | 3 |
| | |
| 4. PROGRAMAREN ANTOLAKETA | 28 |
| 4.1 Programa edo jardueraren xede den biztanleria | 9 |
| 4.2 Hartzaileen / erabiltzaileen kopurua | 5 |
| 4.3 Antolaketako pertsonen kopurua | 5 |
| 4.4 Programaren / jardueraren iraupena | 9 |
| | |
| 5. ERAKUNDEA | 25 |
| 5.1 Kide kopurua | 25 |

7. DIRU-LAGUNTZEN INSTRUKZIOA EGIN, ETA HORIEI BURUZKO EBAZPENA EMATEKO ORGANO ESKUDUNAK:

Gizarte-politika Arloari (Gizarte-ongizate Atala) dagokio prozeduraren instrukzioa. Alkatetzarena izango da ebazteko eskumena, Gizarte-ongizateko Informazio Batzordearen aurretiazko, nahitaezko eta loteslea ez den irizpenarekin.

8. EBAZTEKO EPEA ETA JAKINARAZPENA EGITEA:

6 hilabetekoa izango da eskaerak ebazteko eta erakunde eskatzaileei jakinarazpena egiteko gehienezko epea, deialdi hau argitaratzen denetik zenbatzen hasita; hala egingo da onetsitako zein ezetsitako diru-laguntzekin. Ebazpenak, bestalde, amaitu egingo du bide administratiboa.

Ebazpena jakinaraziko da eskabidean adierazitako tokian, posta bidez eta jaso izanaren egiaztagiarekin.

9. ZURITZEKO EPEA:

Diru-laguntzak zuritzeko epea 2018ko urtarrilaren 31n bukatuko da.